

281  
←

# XIX-GARREN GIZALDIKO EUSKAL IZKRIBUAK

## JOSE PAULO ULIBARRI-KOAK 1823 GARREN URTEAN ERRO MINISTRUARI EGIN ZION ESKUTITZA, ETA BESTE BATZUK

L 94

*Fausto Arozena jaunari,  
biotzez eta esker onez.*

Oraindikan argitaratu gabe daude Jose Paulo Ulibarri-koaren eskutitz eta izkribuak. Kuadernu aundi batean kopiatzen zituan berak egiten zituanak, eta artzen zituan erantzunak ere bai. Kuadernu ori, Gipuzkua-ko Diputazioan gordetzen da orain, Julio Urkijo-ren liburutegian (1).

Eta ez dira gutxi eskutitz oiek. Bere denborako euskaldun askorekin euki zituan artu-emanak. Euskaldun oietako batzuk, euskaldun eta euskaltzale ezagunak dira: Iztueta, Erro, Aita Zabala, Aita Estarta, Valdespina-ko markes jauna, Tolosa-ko Mendizabal, eta abar (2).

Quadra Salcedo-k (3) eta Urkijo-k (4) eman zuten eskutitz-liburu onen berri. Aita Zabala-ren eskutitzetik zatiren batzuk bakarrik argita-

---

(1) J. de U. 3148, E 2. (Oraingo ezaugarria: 4147).

(2) Beste batzuk: Manuel Emeterio Egula, Ignacio Eguibar, Fray Mariano de Luno, Pedro Licero, Melchor Ezurdia, Cengoitia Bengoa jauna, Juan Bautista Anitua, Manuel Jose Epalza, Julian Argai, Pedro Altube, Juan Jose Arana, Juan Urquiola, Josefa Antonia Nardiz, Maria Josefa Landa bere emaztea, etabar.

(3) LUIS DE AZCONA [FERNANDO DE LA QUADRA SALCEDO]: **El herrador de Abando Juan** (sic) **de Ulibarri**, «Boletín de la Solidaridad de Obreros Vascos» aldizkarian, 1915-garren urteko otsaillaren 15-garren eguneko zenbakian. Urkijo-ren lanetik artzen det aipamen au. Ez det ikusi Q. Salcedo-ren lan au, baiña gauza batzuk buruz eta asmazio aundiarekin esaten dituala jakin det.

ratu dira oraindikan (5). Orain asi naiz zatika-zatika argitaratzeko asmotan. Bakoitzean eskutitz, olerki, eta beste izkribu batzuk emango ditut, Jaungoikoa lagun, euskal jakintzako aldizkarietan (6).

Orain, lau eskutitz gertatu ditut EUSKERA-rako: Lendabizikoa, Erro-ri egin ziona, 1823-garren urtean (7). Bigarrena, Erro-renakin batera Ygnacio Echevarria-ri bialdu ziona (8). Irugarrena, Ygnacio Echevarria-ren erantzuna (9). Laugarrena, Echevarria-ri bigarren aldiz (10).

### [I]

Jaun guztiz-goratu Don Juan Bautizta Erro Erreinuco Ondasuneen zuzentzalle eta gordezallia.

Jauna:

Berorren icen onaren entzutiac bacarric igu (11) itu nau bitarteco bague zucenduten neure (12) escabidia berorregana aurpeguiz aurpegui. Ondo ezagutzen det dana lotsagabetasuna; baña nola euzcaldun on guztiac daucaten berori gurasotzat becela, ala azartu naiz berorri escribitzen Seme batec bere Aita onari eguingo lioquean modura.

Lembicico berorren liburuba iracurri nuben ezquero choratua becela jarri nintzan, nire umetasunetic ain maite nuben izqueta onequin, eta ez nequiatic, ez burlac, ta ez ecer ere nau bildurtu jarritzeco Erro, eta Astarloa (13) Jauneen irichia, ondamura edo embidiya diguten jaquitunén esquer gaistuan. Ascoc esandu naizala erua dauquedala burua arinduric edo aicez beteric, baña ni beti sendo neure eusquera maitiaren amoriuian, eta ez det nai beste izquetaric. Ala lotsagarritzat iduquico nu-

(4) JULIO DE URQUIJO: *¿Historia o novela? El herrador vascofilo José Pablo Ulibarri*, «Euskalerriaren Alde» aldizkarian, V-garren urtean (1915), 225-231-garren orrialdeetan. Lan onetan, berri asko ematen ditu gutun-liburu oneri buruz, eta esaten du Euskaltzaindiaren lendabiziko buruzagia izan zan Azkue apaiz jaunak eman ziola.

(5) Urkijo-k eman zituan aipatu degun lanian, Aita Zabala-ren eskutitz ori 1826-III-19-koa da.

(6) *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País* delakoan agertuko dira Iztueta-ri egindakoak, eta onen erantzunak.

(7) 15-18-garren orrialdeetan.

(8) 18-19-garren orrialdeetan. Oar labur bat azkenean.

(9) 26-garren orrialdean.

(10) 27-28-garren orrialdeetan.

(11) Emen, letra bat borratua dago.

(12) Beste letra bat borratua.

(13) Emen a letra borratua dago. Lendabizi Astarloa jarriko zuen eta gero zuzenketa egin.

que billatzia erderazco carta apainduba berorren bitartecotzat eta uste bete edo compiantzarequin ontzat eramango dubela nuaco esaten nere gurari ta escabidia.

Ygnacio Echevarria Cegama Guiplutzeco semia egonda nere echean perratzalle (14) icasten. Lengo urtian juban zan Madridera esaminatzen eta an ceguala jazo zan zorigaistoco Constitucioaren baranbilla. Guizon gazte ori gorrotatu zan asmo berri oiecaz largaric irabaci onian ceguan echia iguisi etorri cen euscal errira, eta artu zuben armia vizcaian lenbician irten cirian Realista guc Baso mutillac esaten guñiozanaquin. Ybili da beti sendo ta viciro Erregue gure Jaunaren alde arriscu eta neque aundien azpian, eta egon litequiala aloguei (15) ona irabazten bere lanian, guztia larga du jarraitziaren (16) leialtasunez asi zuben bide zucennari.

Munguiaco guda edo ataquí quian (17) zan aurrengo bala batec zaurituzuben guibelalde edo espaldatic eta sendatu zanian (nequez bazan ere) nai zuben berriz irten etsaijen contra.

Orain aurquitzen da verriz erri orretan bere lan edo opicijoari (18) jarraitzeco asmos baña nola lengo zauri arc larga dion erraza gaistua ecin du len becelaco indarric artu biarrean eguiteco. Chit ederqui daqui perratzen, eta zaldiac gobernatzén. Da mutil ona, zintzua, leial, vizcorra, eta biarguñia eta naigaberíc iñori emango ezdiona.

Ea bada neure Jaun on, eta (19) euscaldun maitea; dijua berorren oñetara uste osoarequin berorrec amparatuco dubela sartu albadu Erregueren Zalditeguijan edo bere Zaldizco gordesalle edo guardietan, naiz beste toqui on baten berorren egopian becela eta vicico da beti Jaun berorren aguindubaren beian.

Barcatu neure azartutasuna, eta Jaungoicuac eman diola urtelucéta-co osasuna. Euscaldun guztien Aita izan dedín Erregue, gure Jaunaren, Aldamenian, Ala.

Aldamenian,

Ala deseatzén dio bere oñetan mun eguñiaz berorren servitzari beti betico, Çemendiyán 21 gn. 1823 gn. Urtian euzcalduna.

Jose Paulo Ulibarri-co  
Galindez.

(14) Letra bat borratua.

(15) Aloguei? ala aloguer? Azkenengo letra r azentuduna dala esan liteke.

(16) Jarraitziaren. Orrelaxe jartzen du qui.

(17) Ataquí/quian. Bi aldiz jartzen du qui.

(18) Ez du jartzen punturik j letran, Opizijoari ote da?

(19) Borratu egin zion e letra, idatzita gero.

## [II]

Ygnacio ordaucosu idiquiric cartea Erro entzat, bart amavitan egonaz escribizen guero urrengo goxian eracuzi deutzet D<sup>a</sup> vicentari, eta esandau daguala chit ondo eta berbas naguala Dn Eleuterioequin berac iminiya da icen ganecoa, esque neure gogoa zan euzkeraz lenengo bichi gorriyecaz moldatua, eta jarrituric guero beltzacaz herderia.

Aitu ondo cer Juatzun esaten guizon andi orí, oraingo eran esteutzié lecuric emon arnaza artzeco bere, bateti beste guizon andiyec, bes-teti oroizac edo memorialacaz, oraingo aldean beiyan euquico dau atesaiya edo Jauliac artzeco dan guztiya baita biraltzeco bere, eta batzuri ez Jaramon, baña, eguizu alan Jaquin doyenian bere lanteguiria, noz, ce ordutan, isilic, eta ceuc itze eiten dozula zeure euzqueran polito, berac orduan esta gueratuco eracurtzen echean eguingo dau bertati gauza guztiyac ichiric, ecuztiarren euzquera, eta guero beste egun baten laster len leguez Doyanian calletic echera escuñatu zeduan leguez itze eguiyotzu (20), baña lembicico ondo ondo gogoraturic cer escatuten dozu non edo noraco, eta vetico, eta celan Guizon Argui eta andiya izateco, bera ibili bagaric necatzen, ceuc prestaturic imini non guruzun egon orregaiti doa idiquiric ceuc eracurtzeco Jaquinen ganian egon zaitezen, eta escu garbiyecaz erabili eta zeuc sarratu ondo, guero gogortu artian es ecuñatu edo entregau baña onetaraco lenengo eguin biozu informia eracusteco, baña veti Guizon andiyacaz Buru eraman esan guredot Zabalaequin amaituric informia, eta siazcutu edo firmatu &.

Ordoa Zumeltzuen gutuna guizonchu argal batentzat da Salatzarentzat edo eide munduan dan onena &. prizazaz (21) nago eta Aguinidu zeure eche oneri Cemendiyen 21 gn. sapatue edo Laurembata 1823 gn. urtian.

Gutun ganecoa Juan tzan alan: Al Exmo. Sor. Dn. Juan Baup<sup>ta</sup>. de Erro, Mnro. de Acienda B. L. P. un fino amante vascongado.

Eche Anriec atzeratu ric Juantzan gutuna 25 gn. martitzenian. Juan biarrian sapatuen, atzo gaubean aurquituneuntzen escutauric paperac eta orduatan amurraturic leguez gueratu nintzat (22) ibiltiagaiti zabuan alan cirian prachesen ambata, atristainec, gutuna, eta alacoac.

---

(20) Eguiyotzu? ala eguijotzu? Gaiñean punturik gabe jartzen du y edo j ori.

(21) Prizaz-/az. Orrelaxe jartzen du.

(22) Nintzat jartzen du; t azkenengo letra, n-ren ordeaz.

## [III]

Madriillen abenduco illaren 15 garrena 1823 urtean.

Neure nagozi Yauna chito asco alegratu naiz berori ondo dala entzunagaz eta eheco guztiac bere bay, neu ondo Yaincoari eskerrac. = berorrec bialdutaco gutuna Errorentzat ezdet entregatu cergaitic kendu dute bere nagozitazunetic nic gutuna artu baño lenago eta sartu dira barrabatzen iztcunsaco gentia.

Capuchinoagaz egondu nintzan lenengo egunian eta cegoan bere guztiz desgustauric Barritasun onegaz gente gustiz Donzua kendu ta barrabatzen lagunec imini Erregueren alboan gaur bertan oraindic esta ordubi Santanaco celaiian edo plazuelan guedar eguin dabe Erregue iltzeco bost edo sey milicianoc eta eraman ditue preso cartzelara ori da castigu gustie. Palacion sartu dira Plamazoi asco eta eurec dagoz Aguindutera aurrera bere eta empleoric obeenac bere bay.

Escusaduacas nic eguindaco pretencioa eguitia cergaiti emendagozan marizcalac eurec aguinzen dave Erreguec baño gueyago eta erechizen dau euren escu contu oriec eta pretenditcea gauza ecindana zorakerie aundie da yaungocidac emanic osasuna idukicaetzat [?] importaric allegatu orduco neuncan iru edo lau nagozi lastimaric egondu naiz amabost egunean gueldi á beraren zai.

Euskeldunic ecin ecuzi dave emengo genteac, ugazabadriari abiscen diot uste icendot estodala lecuric eukico berorreri escribatzeco beste cartadune bere alferric izan dira ezdute cerbitu or aimbeste gauzaric ecin ymini diot dira goxeco amar terdiec eta beste batean iminico diot espacios eta Aguindu berorren servizari oni veti dago sendo ta firme cerbitzeco gogoti orain aguindu agur.

*Ygnacio de Echevarria.*

## [IV]

YGNACIO Echevarria Yauna.

MADRILEN.

Abendua 20. gn. 1823 gn. urtian.

ABANDON.

Agur nere ycazla maitia. neure poza da zeu ondo zorionzu vici zaitzela Yaincoa laudazen Biotz osoakin, eta lecu gustietan sendo orretan. Guc osasune daucagu baña nekeac sarri prachesa Plaza edo celañico Aguintaria yunanda (23) pransiera zeuc eranzico Zaldiyec, eta emon bagaric dirue.

Errori kentzea euki daben lanetic guztiz nago acecabeturic. Baña An-diiakin alan bieratutiaz Munduan eztago Yakitun aundiiagoric, eta obuan edo yuztuan vicidanic Erregueren alderaco ori bezelacoric baña euzkeraren atzaiac eta Erreguenac ez gura icuzi, eta nai leuke ilic balegoz orlaco guztia. ansinati dabilz plamazoiac eta gaizto guztia nondi galdu euzkeldun Arguitasuna kendutiaz Erregueren aldemenetic cegaiti euzcaldunac yagon eguin dute ondo Erregue, eta euzcaldun Erriac soli soli.

Orain egon arren Erro Yauna kenduric bere nagozitasutic, eta balego gazkiloturic ere eman eguiozu papera dagoen guizan sarraturic gutuna utze eguin bagaric es eguin arren ecer ere. Cegaiti paper orren erabesta dauco Basaguren-ec eta dakiie Ecautu Yaunac edo Diputauac. orregaiti dagoz galdezen egunnero, eta eukidot ceure gutuna cer eracuzi sinistuerazoteco estozula ezcuñatu oraindi eta neure derechea eta eurena da escuñatia leboxen len utze egin bagaric.

Urrengoan biralducozu celan escuñatu dozun, eta nola itze eguin deutsu, baita orco berriia. emen ecin urten leiié milicianu icenecoa Avemariiac yo eskero, es baltsic ere, arrapacen dana Calean Zoricharrá daukie Dn. Ularion arana beste zazpigaz galeran sartu ditube lengo gaubean, icenda iriotza (24) bi eta beste bat zaurituric. Ardaoteguiian Abemari-tacoa yo eskero Atea ichiric mukila edo multiaz &. Orti dagozan euzcaldunac auso, vicicen eta cargudun guziac errazoi bat neuretzaco calteric eguin bagaric zeure eguin biarrari, nolacoac dirian eta ce corrica (25)


(23) Yun/anda. Orrelaxe jartzen du.

(24) Iriotza. Eriotza ez.

(25) Corrica. Carrica ez.

edo calean eta celanetacoc eta ce probinziacoc eguin albalitz gurari andiia dauket, eta Motzari ongui esan barrucua ateratzeco ardao mamachakin, eta euskeldunac alcar ba batean eleizac eguiteco gustiz ederrac iminteco Belaunec herdaldunec Yaincoa Laudacen macurturic gurtuten, alan on-duteco marter gaizto alper diranac, eta guc sotilcho, eta policho mañes mañes eracarri gueuri sinistura biotz osos. euskeldunac eguin beugu Ye-suiten lana astu baric gure itze eta etorrerea &. Orain emen naucazu neure alaideaz cerbicetco (26) zeure eche onetan vetico noc estima-cen zaitu.

*Jose (sic) Paulo Ulibarri-co  
Galindez.*



*Jose Paulo Ulibarri-koaren firma, lendabizi  
kalkatua eta gero kalkotik grabatua.*

Irun-Urantzunen, 1961-VIII-10.

N. ALZOLA